



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## 2016KO URRIAREN 10EKO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2016.10.10  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.  
Zinegotziak:  
Mentxu Peña Lizarazu and.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Igor Ugalde Salazar jn.  
Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Iñigo Sarrias Zoco jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Inor ere ez.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Euriteek hondatutako pista moldatzeko lanen esleipena.
- 3.-Larretako lurra saltzeari buruz.
- 4.-Arantzako eskolan antzerkia lantzeko diru laguntza eskaera.
- 5.-Auzolanari buruzko ordenantza.
- 6.-Alkatearen ebazpenak.
- 7.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2016ko irailaren 20an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

### **2.-EURITEEK HONDATUTAKO PISTAK MOLDATZEKO LANEN ESLEIPENA.**

Udal honek Basarte S.L. enpresak egindako proiektuan bildua diren hainbat pista ( Aientsako 2 pista eta Zerrado, Laraburuko Borda, Maudinko Borda-Arizpe eta Beratsekun

baserrietakoak) moldatzeko lanak esleitzeko gonbidapenak igorri zituen (16.414,02 euroko lanak, BEZ barne).

Hauek izan dira aurkeztutako proposamenak:

-Mikel Ubiria S.L.

-Javier Alzugarai S.L.U.

-Sasoi eraikuntzak S.L.

Proposamen ekonomikoak ireki dira. Hauek izan dira aurkeztutako proposamenak:

-Mikel Ubiria S.L.: 13.459,50 euro, BEZ barne.

-Javier Alzugarai S.L.U: 13.950,00 euro, BEZ barne.

-Sasoi eraikuntzak S.L.: 16.414,02 euro, BEZ barne.

Ondorioz, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Mikel Ubiria S.L.enpresari aipaturako bideak moldatzeko lanak esleitzea, 13.459,50 eurotan, BEZ barne, beti ere aurkeztutako bere proposamena eta Basarte S.L. enpresak egindako proiektuaren arabera, proposamen merkeena delakoz.

2) Mikel Ubiria S.L. enpresari jakinaraztea obrak 2016ko azaroaren 15erako eginak egon behar dutela.

3) Ebazpen hau enpresa guztiei jakinaraztea.

### **3.-LARRETAKO LURRA SALTZEARI BURUZ.**

Arantzako Udalak 5. poligonoko 420. lur zatia saldu nahi du. Lur zatia hori Arantzako sektorizatutako lurren S2.AR2 eremuan kokatzen da (5. Jabetza Erregistroan inskribatua datu hauekin: tomoa 3414, liburua 37, orria 178, lur zatia 1978). Bertan 2 etxebizitzako eraikuntza eraiki daiteke.

Ikusirik Udaleko arkitektoen balorazioa (63.136,16 euro).

Ikusirik lur zatia hori ondarezko lurra dela.

Ikusirik 2016ko aurrekontuan lurraren balorea sarrera arrunten (100.214,94 euro) %25 a baino tikiagoa dela eta ez dela izaera historiko-artistikoa duen ondasunik eta ondorioz, ez dela Nafarroako Gobernuaren baimenik behar salmenta egiteko.

Ikusirik espedientean dauden txostenak eta plegu administratiboa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako entitate lokalen Ondasun Arautegia onesten duen 280/1990 Foru Dekretua eta Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Larreta alderdiko 5. poligonoko 420. lur zatia saltzeko, enkantearen bidez, espediente onartzea.

2) Salmenta burutzeko espedientean dagoen plegu administratiboa onartzea.

3) Iragarkia Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.

### **4.-ARANTZAKO ESKOLAN ANTZERKIA LANTZEKO DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Gai hau mahai gainean uzten da.

### **5.-AUZOLANARI BURUZKO ORDENANTZA.**

Ikusirik auzolanari buruz prestatutako ordenantza.



## ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraituz

Aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako ordenantza hasiera batez onartzea.
- 2) Ordenantza Udalaren iragarki oholean argitaratzea, hogeita hamar egun baliodunetan, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aitzina, bizilagunek eta bidezko interesa dutenek, aipatu epe horren barrenean, Udal Idazkaritzan dagoen espedientea aztertu eta bidezkoak diren alegazioak aurkez ditzaten. Epe hori inork erreklamaziorik aurkeztu gabe iraganik, behin betiko onetsizat joko da ordenantza.

### 6.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2016ko 121. ebazpenetik 128. ebazpena arte.

### 7.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 21:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

